



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EKINTZA HUMANITARIOKO ESKU-HARTZEETARAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA

31/2019 LGAKZ - LT

AURREKARIAK

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak izenburuan adierazten den dekretu-proiektuari buruzko legezkotasun-txostena igor dezagula eskatu digu.

Txosten-eskaerarekin batera, dekretu-proiektuaren testua eta jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali digu:

- 19/2018 Dekretua, abenduaren 12koa, lehendakariarena, ekintza humanitarioak garatzen dituzten esku-hartzeetarako diru-laguntzak arautzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena (euskeraz eta gaztelaniaz).
- Aurretiazko kontsulta publikorako agiria (euskeraz eta gaztelaniaz).
- Dekretu-proiektuaren azalpen-memoria, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak eta Koordinazio Teknikoaren arduradunak izenpetua (gaztelaniaz).
- Dekretu-proiektuaren memoria ekonomikoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak izenpetua (gaztelaniaz).
- 20/2018 Dekretua, abenduaren 14koa, lehendakariarena, ekintza humanitarioak garatzen dituzten esku-hartzeetarako diru-laguntzak arautzeko dekretuaren proiektua aurrez onesten duena (euskeraz eta gaztelaniaz).



- Txosten juridikoa, Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak igorria (gaztelaniaz).
- Dekretu-proiektuaren lehen zirriborroa, Tramitagune aplikaziora 2018ko abenduaren 14an igotakoa (euskeraz eta gaztelaniaz).
- Dekretu-proiektua izapidetzean Jaurlaritzako gainerako Sailek eginiko alegazio-txostenak (euskeraz eta gaztelaniaz).
- Genero-eraginari buruzko txostena, ekimena sustatzen duen Sailak eginikoa (gaztelaniaz).
- EMAKUNDEren txostena (gaztelaniaz).
- Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseiluak igorritako manuzko txostena, lehendakariak eta idazkariak izenpetua (gaztelaniaz).
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak igorritako txostena (euskeraz).
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (DACIMA) txostena (gaztelaniaz)
- Dekretu-proiektua izapidetzean eginiko aldaketak jasotzen dituen bigarren azalpen-memoria (gaztelaniaz)
- Dekretu-proiektuaren 2. zirriborroa, Tramitagune aplikaziora 2019ko otsailaren 28an igotakoa (euskeraz eta gaztelaniaz).

Legezketasun-azterketa egiteko bidali diguten dokumentazioaren artean ez da ageri Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua enpresaren gaineko eraginari buruz aurreikusitako txostena. Artikulu horrek ezartzen duenez, Euskadiko Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz. Txosten hori nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran.

LEGEZKOTASUN-AZTERKETA

Txosten hau jarraian adierazten diren lege eta dekretuetan xedatutakoarekin bat etorritik igortzen dugu:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a artikulua)
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena (11.1 eta 2 b artikulua)
- 24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (6.1 h artikulua)
- 71/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa (12.1 a artikulua)

I.- Proiektuaren xedea, azalpena eta edukia

Espedientean dekretu-proiektuari buruzko bi zirriborro daude jasota, biak euskerazko eta gaztelaniazko bertsioetan: bata, 2018ko abenduaren 14an Tramitagune aplikaziora igotakoa, eta bestea 2019ko otsailaren 28an igotakoa. Bada, bigarren zirriborro hori da txosten honetan aztertuko duguna.

Dekretu-proiektuaren xedea da ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzeko laguntzen araubidea arautzea gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak jasaten dituzten biztanleentzat, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bitartez identifikatuta. Esku-hartzeak bizitzak salbatzeko, sufrimendua arintzeko, giza duintasuna babesteko eta pertsonen eskubideak zaintzeko egiten dira.

Garapenerako Lankidetzari buruzko Legearen (otsailaren 22ko 1/2007 Legea) 21. artikuluan ezartzen denez, honako hau da ekintza humanitarioa: hondamendiek eragindako biktimei edo egoera biziki ahulean dauden herriei ematen zaien laguntza oro, bizirik iraun dezaten, edo beren eskubideak babestearren, duintasuna defendatzearen eta geroko garapenerako oinarriak jartzearren.

Azken urteetan, otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren (Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitariotarako laguntzak arautzen dituenaren) bidez ezarri dira ekintza humanitarioak burutzeko laguntzen deialdiak.

Ekainaren 19ko 5/2008 Legea (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena) onartzean, eta 95/2010 Dekretuan (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duenean) aurreikusitakoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio garapenerako lankidetzapolitika betearaztea.

Zehazki, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, nortasun juridiko propioa eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasuna dituena. Horretarako, ezinbestekoa da dirulaguntzen araudia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren errealitate juridikora eta praktikara egokitzea.

Ekintza Humanitarioko Estrategiaren helburua da, beraz, 2018-2023 aldirako Eusko Jaurlaritzaren politika humanitaria planifikatzea eta lau jarduera-ardatzetan antolatzen diren ekintza zehatzak proposatzea: krisi humanitarioak kalte egin dion biztanleria babestea; erakundeak indartzea, beren lana eraginkortasun handiagoarekin gauzatu dezaten; herritarrak informatu eta sentsibilizatzea, ekintza humanitarioan parte har dezaten; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eginkizuna eta beste eragile batzuekin duen koordinazioa indartzea, bere politikaren kalitatea hobetzeko.

Hori guztia dela eta, diruz lagun daitezkeen esku-hartzeei beste ikuspegi bat eman zaie, gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk lehenestea izan dadin helburu nagusia.

Horren harira, aurreko Dekretuaren aldean egindako aldaketa nabarmenenak dira, batetik, gatazka-testuinguruak eta beste indarkeria-egoera batzuk lehenetsi izana. Gaur egun, gatazketan ez dira sartzen soilik gerrako borrokak, baizik eta baita beste indarkeria-egoera batzuk ere, narkotrafikoarekin eta krimen antolatuarekin lotuak. Gainera, azaleratzen ari direnak, luzeak edo ahaztuak izan daitezke.

Krisi humanitario luzeak dira pertsonak nahitaez desplazatu beharra eragiten duten arrazoi garrantzitsuenetako bat, eta garapen jasangarria hondatzen ari dira. Krisialdi luzeetan beharrian izugarriak eta ustekabeak, egiturazko ahultasunak eta urteetan irauten duten larrialdiak batzen dira. Ahaztutako gatazketan biztanleriak ez du ia laguntzarik jasotzen, eragile humanitario gutxi, estaldura mediatiko txikia eta dohaintza-emaielen interes-falta baitago.

Bestalde, Dekretu honen arauaren helburuak bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu larrialdi humanitarioko ekimenak diruz laguntzeko laguntzak, premiazko jarduera horiek berehalako erantzun bat behar baitute, hots, 48 edo 72 ordutan eman beharrekoa, eta hori ezin da bete diru-laguntzen arau honekin.

Era berean, diru-laguntza hauen kudeaketa optimizatzeko asmoz, administrazio-prozesuak sinpletzeko alderdiak arautzen dira.

Esparru orokor horren barruan, aurreko Dekretuak arautzen zituen esku-hartzeko bi modalitateei eutsi zaie –ekintza humanitarioko proiektuak eta ekintza humanitarioko estrategiak–, eta esku hartzeko beste bi modalitate sartu dira, finantzagarriak, irekiak eta iraunkorrak direnak ekintza humanitarioko ekimenetarako eta ekintza humanitarioko estrategietan norgehiagoka arautzen dutenak; halaber, diru-laguntzen arauak aurreikusten zuen ordainketa-sistema berbera ezarri da.

-DEKRETUAREN TESTUAREN AZTERKETA

Testuaren azterketari gagozkiola, ekimen arautzailea proposatzen duen Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren txostenak beren beregi zehazten ditu dekretu honen testua aztertzeko kontuan izan beharko ditugun arauak:

-Batetik, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzeari dagokionez, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutuan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

Estatuko arauari dagokienez, berriz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen oinarrizko arauak, dirulaguntzei buruzkoak; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen lege orokorra garatzen duen araudia onesten duena.

-Bestetik, dekretu-proiektua izapidetzen duen organoari eragiten dioten arauari dagokienez, honako hauek:

- 24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen
- 70/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena
- 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa
- 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena
- 95/2010 Dekretua, martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena
- 310/2010 Dekretua, azaroaren 23koa; honen bidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baliabide pertsonalak eta materialak Agentzia horri atxikitzeko baldintzak arautzen dira
- 11/2017 Dekretua, apirilaren 25koa, lehendakariarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariaren egitekoak direla-eta Eusko Jaurlaritzaren lehendakariaren eskumenak eskuordetzeko dena

Aztergai dugun testua hainbat zatitan egituratua dago: azalpen-zatia, hogeitasei artikuluz osatutako xedapen-zatia, xedapen indargabetzailea eta bi azken xedapen.

Testuaren 1. artikulua ezartzen du dekretuaren xedea dela ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzeko laguntzen araubidea arautzea gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak jasaten dituzten biztanleentzat, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bitartez identifikatuta.

2. artikulua finantzatu daitezkeen esku-hartze modalitateak zehazten ditu. Batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, Dekretu honen 4.1.a), 4.1.b) eta 4.2. artikuluan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituzten erakundeei zuzenduak; eta bestetik, ekintza humanitarioko estrategiak, Dekretu honen 4.1. eta 4.2. artikuluan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituzten erakundeei zuzenduak.

3. artikuluan baliabide ekonomikoak zehazten dira: horien jatorria, dirulaguntzaren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoa, eta dirulaguntzak esleitzeko prozedurak.

Laguntza horietarako erabiliko diren baliabide ekonomikoak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan berariaz ezarritako aurrekontu-zuzkiduretatik aterako dira. Baliabide ekonomikoak bi esleipen-prozeduraren bidez banatuko dira, esku-hartzeko modalitateei jarraikiz:

a) Ondo ondoko emakida-prozedura, modu iraunkorrean zabalik dagoena ekintza humanitarioko proiektuentzat, eta eskaerak aurkeztutako ordenari jarraikiz esleituko dena.

b) Norgehiagoka-araubideko prozedura, ekintza humanitarioko estrategietarako.

Ekintza humanitarioko proiektuetarako, diruz lagun daitekeen proiektu bakoitzaren muga 200.000 eurokoa da. Ekintza humanitarioko estrategietarako, berriz, eskatutako diru-laguntza gutxienez 500.000 eurokoa eta gehienez 800.000 eurokoa izango da. Edonola ere, deialdia ebaztean murriztu egin ahalko da strategiako eskatzen den gehieneko edo gutxieneko zenbatekoa.

4. artikuluan dirulaguntzok eskatzen dituzten EAEko erakunde edo erakunde-talde onuradunek bete beharko dituzten betekizunak zehazten dira: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan izena emanda egotea; Estatutuek berariaz jasotzea bere xedeetako bat ekintza humanitarioko proiektuak garatzea dela, edo agiri bidez egiaztatzea erakundeak modu etengabearen diharduela, gutxienez bi urte, arlo horretan; eta ekintza humanitarioko estrategien kasuan, erakunde eskatzaileak ekintza humanitarioko plan estrategiko bat edukitzea Euskadiko Autonomia Erkidegoko bere egoitzan egiten duen lanerako.

5. artikulua ekintza humanitarioko esku-hartzeen baldintzak zehazten ditu.

Ekintza humanitarioko esku-hartzeen kasuan honako hauek: dagokion deialdiaren aurrekontu-ekitaldian hastea; gehienez ere, hamabi hilabeteko iraupena edukitzea ekintza humanitarioko proiektuetarako, 6 hilabetez gehienez ere luza litekeena, eta hogeita lau hilabetekoa ekintza humanitarioko estrategietarako, gehienez ere hamabi hilabetez luza litekeena; eta tokiko bazkide baten edo bazkide-talde baten partaidetza edukitzea, publikoa nahiz pribatua izan, esku-hartzea garatuko den lekuan edo lekuetan.

Tokiko bazkidea deitzen zaio, zehazki, erakunde onuradunarekin lankidetzeta-harremanak dituen eta diru-laguntzaren xede diren jarduerak osorik edo partzialki zuzenean egiteko erantzukizuna hartzen duen pertsona juridikoari.

Tokiko bazkideek bete beharko dituzten baldintzen kasuan, berriz, honako hauek:

-esku-hartzea garatuko den herrialdeetakoren batean aplikatu beharreko legediarekin bat eginez eraturako nortasun juridikoa edukitzea eta formalki inskribatuta egotea dagokion erregistroan, eskaera aurkeztu den data baino gutxienez urtebete lehenagotik.

-Indarrean dagoen legeriaren arabera, sexuaren arrazoiengatik bereizkeria egin izanagatik administrazio arloko edo zigor arloko zigor edo zehapenik ez izatea.

-Tokiko bazkideen taldeetan, parte hartzen duen erakundeetako bakoitzak bete beharko ditu aurreko atalean aipatutako baldintzak, eta eskaeran berariaz zehaztu beharko du ekimenaren gauzatzearen eta beraren justifikazioaren gain hartzen duen erantzukizun solidarioa, bai eta bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ere.

6. artikuluak deialdiak arautzen ditu. Dekretuan araututako laguntzak aldian-aldian deituko dira, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez. Berrikuntza moduan, Dekretu honek jasotzen dituen esku-hartzeko bi modalitateak deialdi baten barne hartu ahal izango dira, edo deialdiak banan-banan ere egin ahal izango dira.

Deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta bertan zehaztuko dira deialdiaren xedea, modalitateetako bakoitzerako hornidura ekonomikoa, Hautaketa Batzordeko kideen izendapena, eskaerak aurkezteko modua eta epea, eta, hala badagokio, esku-hartze bakoitzak eska dezakeen gehieneko eta gutxieneko zenbatekoa, erakunde bakoitzak aurkez dezakeen gehieneko eskaera-kopurua, eta garapenerako lankidetzaren urteko planak ezarritako esparruaren barruan diruz lagun daitezkeen ekimenetako lehentasunak.

7. artikuluak diruz lagundu daitezkeen gastuak arautzen ditu. Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izan daitezke, besteak beste: materialen eta gaien erosketa eta garraioa; ekipo eta

espazioen alokairua; pertsona fisiko eta juridikoen kontratazioa; bidaiak eta egonaldiak; produktu eta materialen sorrera eta hedapena; hori guztia, 6. artikuluko 3. atalean ezartzen diren irizpideen arabera. Deialdiaren ebazpenean bertan ezarriko da horietara jotzeko modua.

8. artikulua ezartzen du erakunde interesdunek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dituztela eskaerak. Eskaera osteko izapideak egiteko bitarteko elektronikoa erabiliko dira soilik, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgune elektronikoen bidez. Eskaeran erantzukizunpeko adierazpenei buruzko atal bat ere jasoko da.

9. artikulua, berriz, eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten du.

10. artikulua zehazten du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuaren eginkizuna izango dela laguntzen azterketa teknikoa egitea eta kudeaketa-zereginak betetzea.

11. artikulua eskaeretako akatsak zuzentzeko aukera aurreikusten du, baita legezko epean ez zuzentzeak dakartzan ondorioak, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

12. artikulua hautaketa-batzordearen eraketa eta funtzionamendua ezartzen du. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratzeko, Hautaketa Batzorde bat eratuko da, eta pertsona hauek izango dira batzordekideak:

a) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko arduraduna; batzordeko lehendakaria izango da

b) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako goi-mailako bi teknikari; bietako batek egingo ditu batzordeko idazkari-lanak.

Batzordearen erabakiek batzordekide gehienen aldeko botoa beharko dute.

13. artikulua balorazio-irizpideak zehazten ditu. Eskakizun guztiak betetzen dituzten eskaerak baloratuko dira, lau bloke nagusitan banaturik, eta gehienez ere 100 puntu jaso ahal izango

dituzte: esku hartzearen kalitatea (43 puntu arte), zeharkako ikuspegiak proposamenean duten lekua (40 puntu arte), erakunde onuraduna (6 puntu arte), eta tokiko bazkidea (11 puntu arte).

14. artikulua laguntzak emateko prozedura zehazten du, bai ondoz ondoko emakida-prozeduretan bai norgehiagoka-araubideko prozeduretan.

Ondoz ondoko emakida-prozeduretan, baldin eta azken eskaera baterako soberakina geratzen bada funtsean, dagoen zenbatekoaren arabera murriztuko da emango zaion diru-kopurua.

Norgehiagoka-araubideko prozeduretan, partzialki onetsia izango da, kreditua nahikoa ez delako ezetsi diren eskaeren artean puntuaziorik onena lortu duen eskaera, betiere eskaeraren zenbatekoa eskuragarri dagoen kopuru horretara murriztuz.

15. artikulua xedatzen du Hautaketa Batzordearen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak emango duela eskatutako laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena eta ebazpen horrek amaiera emango diola administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, edo zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenean.

16. artikulua erakunde onuradunen betebeharrak ezartzen ditu, alegia Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2. artikuluan, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoak, eta zehazki dekretuan bertan adierazitakoak.

17. artikulua ezartzen duenez, dekretu honen babespean lortutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste laguntza batzuekin, helburu bera badute. Beste administrazio publiko edo erakunde pribatu edo publiko batzuek, estatukoak edo nazioartekoak izan, emandako dirulaguntzekin bat eginez gero, laguntza horien zenbatekoa ez da izango erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa. Gain-finantzaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntzari kenduko zaio gainditzen duen zenbatekoa.

18. artikulua dirulaguntzak ordaintzeko moduak arautzen ditu.

Ekintza humanitarioko proiektuak ordainketa bakarrean ordainduko dira, laguntza onartu ondoren. Ekintza humanitarioko estrategiak, berriz, jarraian adierazten den eran:

- a) Diruz lagundutako zenbatekoaren %50aren lehenengo ordainketa laguntza onartu ondoren egingo da.
- b) Bigarren ordainketa, falta den zenbatekoa duena, emandako dirulaguntzaren % 25 justifikatu denean egingo da, laguntza onartu den aurrekontu-ekitaldiaren hurrengoa amaitu baino lehen betiere.

19. artikulua, berriz, justifikazioari buruzkoa da. Artikulu horretan jasotakoaren arabera, esku-hartze humanitarioak justifikatzeko, egindako gastuaren justifikazio-kontua baliatuko da, eta kontuen ikuskaritza jasotzen duen txostena aurkeztuko da, esku hartzeak gauzatzen diren herrialdeetako legeriarekin bat etorriz.

Nazioarteko erakundeek gauzatutako gastuen kasuan, aplikatzekoak zaizkien akordioetan, konbentzioetan eta nazioarteko beste tresna batzuetan ezarritako mekanismoen arabera egin eta egiaztatuko dira.

Azken justifikazio-kontua esku-hartzea amaitu den data ondorengo sei hilabeteetan aurkeztu beharko da.

20. artikulua abalaren salbuespena aurreikusten du. Aurretiaz egiten diren eta 180.303,63 eurotik gorako zenbatekoa duten ordainketetan ez da aurkeztu beharko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenak) 2. artikuluan arautzen duen abala edo fidantza.

21. artikulua ondasunak diru-laguntzen xedeetara lotzeari buruzkoa da. Artikulu horretan zehazten denez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioarekin eskuratutako ondasun guztiak eta horiek sortzen dituzten zatikizunak formalki lotu beharko dira egindako esku-hartzearen xedeetara, beren izaeraren arabera, eskuratutako ondasunak biztanleen, tokiko bazkidearen edo erakunde onuradunaren jabetza izango direlarik.

22. artikulua dirulaguntzen baldintzak aldatzea aurreikusten du.

23.ak, berriz, ez-betetzeak jorratzen ditu. Hartara, ezartzen du dirulaguntza emateko betekizunak betetzen ez direla frogatzen bada, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkiola, batetik, jasotako kopuruak eta, bestetik, sortutako legezko interesak, hala agintzen baitute azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak (Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak). Itzultzeko modua ere aipatutako dekretuetan dago jasota.

24. artikulua dirua itzultzeko prozedura zehazten du.

25. artikulua, esku-hartzeetan izan daitezkeen aldaketak jorratzen ditu. Funtsezko aldaketatzat hartuko dira, xede den biztanleriari, proiektuaren kokapenari, tokiko bazkideari, edo espero diren emaitza eta helburuei buruzkoak. Era berean, funtsezkotzat joko dira proiektuaren garapenari eragiten dioten aurrekontu-aldaketak edo proiektuaren egikaritzan izandako atzerapenak.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutako zenbatekoa baino baxuagoa bada, erakunde esleipendunak esku-hartzea birformulatu beharko du, esleitutako zenbatekoaren arabera, eta egindako esku-hartzea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari jakinaraziko dio.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emango du proposatutako aldaketei buruzko ebazpena eta, aldaketa egiteko eskaera ukatuz gero, hasieran ezarritako baldintzetan jarraitu beharko du prozesuarekin erakunde onuradunak.

Azkenik, 26. artikulua jardueren gaineko kontrola arautzen du, hain zuzen ere Dekretuan jasotako helburuekin bat egiten duten aztertzeak, behar diren neurri zuzentzaileak finkatzeko, egoki iritzitako egiaztapenak egiteko, eta laguntza ematen duen ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko. Halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako

Zuzendaritzak egokitzat jotzen duen adina egiaztapen egin dezake emandako dirulaguntzaren inguruan, eta laguntza justifikatzeko agiri guztiak aztertu ahal izango ditu, hala eskatzen badu.

Xedapen indargabetzaileak indargabetu egiten du otsailaren 19ko 31/2008 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituen, bai eta dekretu-proiektu honetan ezarritakoaren aurka egiten duen maila bereko edo baxuagoko beste edozein xedapen ere.

Bestalde, azken xedapenetatik lehenak dekretu-proiektuan aurreikusten ez den guztian aplikatuko diren arauak zehazten ditu, eta bigarrenak dekretua noiz jarriko den indarrean zehazten du, alegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

II.- Izapidetzea

Aztergai dugun dekretu-proiektuak xedapen orokorren izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako manuzko izapideak bete beharko ditu, testuarekin batera igorritako txosten juridikoan adierazi bezala.

Espedientean hasierako agindua eta aurretiazko onespren-agindua jasota daude, biak ere Lehendakariak izenpetuak. Hortaz, bete egiten da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 5. eta 7.1 artikuluetan xedatutakoa.

Hasierako aginduan, berariazko aipamena egiten zaio xedapen arautzaileak antolamendu juridikoan izango duen eraginari. Hartara, esaten da sustatzen den proiektuak zuzeneko eragina duela indarrean dauden arauetan, dekretuaren helburua horixe baita, gaur egun ekintza humanitariorako dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudia eguneratzea. Izan ere, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituen otsailaren 19ko 31/2008 Dekretua beren-beregi indargabetuko du proiektu honek, diru-laguntza horietarako araudi berri bat ezarriz.

Bestalde, xedapen arautzaileak aurrekontuan izango duen eragina ere aztertzen da, eta esaten da dekretu-proiektuak ez diela zuzen-zuzenean eragiten Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorre, dekretuaren onarpena bera ezin izango baita Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Ogasun Orokorrak derrigorrez jasan beharreko obligazioen iturri. Dekretu honek,

dena den, araututako dirulaguntzen deialdia urtero egin ahal izateko lege-esparrua ezartzen du. Horregatik, egiazki, deialdien ebazpenetan jaso beharko da laguntzen programa egokiro estaltzeko nahikoa aurrekontu-zuzkidura.

Hasierako agindu horrek gaineratzen du, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan araututakoaren arabera, memoria ekonomikoa egin beharko dela eta espedientean jaso. Bada, memoria ekonomiko hori espedientean jasota dago, eta dekreturen alderdi ekonomikoei eta dekretuak ekonomian izango duen eraginari buruzko txostena biltzen du, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioan ekonomiaren eta arauen kontrolaren esparrua arautzen duten xedapenekin bat etorriz.

Memoria ekonomiko horretan jasotzen denez, dekretu-proiektuaren 3. artikulua zehazten du laguntza horietarako erabiliko diren baliabide ekonomikoak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan berariaz ezarritako aurrekontu-zuzkiduretatik aterako direla. Halaber, 3.5 artikulua ezartzen du laguntzen deialdira bideratzen diren baliabide ekonomikoen zenbatekoak, zaindu egin beharko duela deialdia egiteko unean indarrean dauden Garapenerako Lankidetzaren Gida Planean eta Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako esparrua.

Beraz, dekretu-proiektu honen bidez diruz lagundutako ekintza humanitarioko esku-hartzeen finantzaketa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren aurrekontuaren pentzutan izango da, eta baliabide horiek dekretu-proiektuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera banatuko dira.

Era berean, memoria ekonomikoak ez du aurreikusten gainerako administrazioei, gizabanakoei ezta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren giza baliabideei zein baliabide teknikoiei gastu gehigarrikerik eragingo zaienik.

Espedientean jasota daude, baita, azalpen-memoria eta txosten juridikoa. Txosten juridikoak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7.3 artikuluan zehaztutakoa betetzen du.

Europako Batasunak Estatuko Laguntzei buruz araututakoa aztertzen du, eta txostenean azaltzen diren arrazoiak tarteko, ondorioztatzen du ez dela inolako izapiderik bete behar Europako Batasunean; izan ere, araututako dirulaguntzen eta erakunde onuradunen izaera dela-eta, dirulaguntza hauei ez zaizkie aplikagarri Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107 eta 108 artikulua.

Hortaz, bete da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 8/2003 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian Europar Batasunean egin beharreko izapideei buruz araututakoa.

Arestian esan bezala, ordea, ez da bete Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua enpresaren gaineko eraginari buruzko txostenaz agindutakoa. Artikulu horrek ezartzen duenez, Euskadiko Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz. Txostena nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran.

Adierazi moduan, espedientean ez dago jasota ebaluazio hori, ez txosten berezitu moduan ezta txosten juridikoaren baitan jasotako atal berezitu moduan, eta nahitaezkoa da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran.

Bestalde, herri administrazioetan euskeraren erabilera normalizatzeko txostena jaso da, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan ezarritakoa betez. Txosten horretan adierazten denez, bete egin da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluan ezarritakoa; izan ere, hasieratik zintzilikatu dira dekretu-proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak. 8/2003 Legearen 7. artikulua zehazten duenez, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du, euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betetzera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena (esp. 2013/00518) (a/20130135): *“Xedapen orokorren proiektuak, 8/2003 Legearen 5. artikuluko Hasierako Aginduan zehaztutako teknikaren bidez bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta gero, Hasierako Agindu hori onartu duen organo berak alde aurreko onarpena eman beharko die testuaren bi bertsio linguistikoei, 8/2003 Legearen 7. artikuluan esaten denaz bat, betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak **ele bitan dagoen testuarekin** egin beharko dira. Ondorengo instrukzio-faseetan ere, **derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da**”.*

Beraz, legezketasun-azterketara igortzen den testuak, nahitaez, elebiduna izan beharko du - aztergai dugun kasuan gertatu bezala- legezketasun-txostenean egiten diren ohartarazpenak bi testuetan jaso ahal izateko.

Kontuan izanda, gainera, ofizialak eta benetakoak testuaren bi bertsio linguistikoak direla, eta bi bertsioen arteko zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa segurtasun juridikoa bermatzeko ezinbesteko baldintzak direla, logikoa da bi bertsioek jarraitu behar izatea 8/2003 Legeak aurreikusten duen prozedura osoa, hau da, kontsulta-izapidea, audientzia publikoa, txostenak... Horrela jokatuta, prozeduraren bermeak bi bertsiook dituzte, eta horrek ez soilik zehaztasun eta baliokidetasun juridikoa hobeto bermatzea, baizik eta segurtasun juridiko handiagoa izatea dakar.

Horrez gain, azpimarragarria da txosten horrek xedapen-proiektuaren 12. artikulua idazketaren harira egiten duen gomendioa, alegia deialdi bakoitzera aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratzeko osatuko den Hautaketa Batzordea arautzen duen artikulua.

Batzordekideek Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein batzordeko gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraitu beharko dietenez, txostenak komenigarria ikusten du Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartzea, eta artikuluan bertan idatziz hala txertatzea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun eduki dezatela, gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatzea eta Batzordeko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dutela.

Azkenik, espedientean jasota dago Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseiluak igorritako manuzko txostena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 11. artikuluan xedatutakoa betez. Jasota daude, baita, dekretu-proiektua izapidetzean Jaurlaritzako gainerako Sailek eginiko alegazio txostenak eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (DACIMA) txostena. Halaber, bete da jendaurreko informazioaren izapidearekin, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Bestalde, dekretu-proiektu hau ez dago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatu behar zaizkion gaien artean, ez baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua aurreikusitako eskumenen artean sartzen.

Legezkotasun-txosten hau igorri ostean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari igorri beharko zaio izapidetutako guztia, ekonomiaren eta arauen gaineko manuzko txostena eman dezan.

III.- Ondorioak.

Horrenbestez, adierazitako oharrazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezkotasun-azterketara aurkeztu diguten dekretu-proiektuari.

Hori da igortzen dudana txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.